

Euskal Administrazioek euskara ere erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin, haren erabiltzea planifikatu eta arautu behar dute

ERMUKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2025- 2027

Ermuko Udala
2025eko ekainaren 19a

AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
LEGE OINARRIAK.....	2
PLAN ESTRATEGIKOAREN IKUSPEGIA	4
APLIKAZIO EREMUA.....	4
ERABILITAKO METODOLOGIA	4
PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO URRATSAK.....	5
Ermuko Udalaren sistema egituratua.....	5
Autodiagnostikoa.....	6
PLAN ESTRATEGIKOAREN ADIERAZLEAK.....	7
HELBURU ESTRATEGIKOA	8
KUDEAKETA. 1.- ardatza.....	8
KUDEAKETA OROKORRA 1. Arloa.....	9
LIDERGOA. 2. Arloa.....	9
LANGILEAK. 3. Arloa	10
GAITASUNA. 4. Arloa	11
ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA 5.. Arloa.....	11
HIZKUNTZA-KLAUSULAK. 6. Arloa.....	11
ERABILERA. 2.- ardatza.....	13
2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA	13
IRUDIA. 7 arloa.....	13
HERRITARREKIKO HARREMANAK. 8. arloa	14
2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA.....	16
BARNE-HARREMANAK. 9. arloa.....	16
KANPO-HARREMANAK. 10. arloa	16
PRESTAKUNTZA. 11. arloa.....	17
BALIABIDE INFORMATIKOAK. 12. arloa	17
SORTZE-HIZKUNTZA. 13. arloa.....	18
2025EKO KUDEAKETA PLANA.....	19
I. ERANSKINA. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOAREN EMAITZAK (47 ADIERAZLEAK)	25
II.ERANSKINA. PUNTUAZIO OROKORRA.....	29

SARRERA

Udalek bi plan onartu ohi dituzte hizkuntza normalizazioaren arloan, biak ere Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraiki, eta biak berritu beharrean gaude:

1. Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa ([AROA](#)¹)

Udalerrira begirako plan estrategikoa, oraintsu arte ESEP edo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana esaten zitzaiona. Marko horrek Gizarteko arlo multzo zabal batean euskara normalizatzeko du helburu: familia, irakaskuntza, aisia, kirola, merkataritza, lan-mundua, teknologia berriak...

2. Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Bost urteko iraupena izan ohi dute plangintzaldiak eta oraingoa [VII. Plangintzaldia](#)² da, 2027ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango duena.

Edonola ere, Ermuko Udaleko plana 2025-2027 denbora tarteaz ezartzen du eta irauten duen bitartean jaso litezkeen ekarpenekin aberasten eta egokitzen joango da, beti ere bertan jasotako helburu eta irizpide orokorrei jarraiki.

LEGE OINARRIAK

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan juridikoki maila berean dauden bi hizkuntza ofizial ditugun arren, eguneroko praktikan ez daude maila berean. Desoreka hori kontuan izanik, Ermuko Udalak sustapen ekintzak jarri behar ditu abian, batetik, herritar guzti-guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta bestetik, gure erakundeetan euskararen erabilera bultzatzeko; izan ere, legediak argi eta garbi esaten du hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla eta obligazioak, ostera, administrazioarenak.

Berrogei urte bete ziren 2022an Euskararen normalizazio legea onartu zenetik. Hura izan zen administrazioa euskalduntzeko EAE mailako lehenengo lege-oinarria eta haren haritik beste hainbat lege, dekretu eta plan etorri ziren. Hemen horietako nagusiak jaso ditugu.

1978ko Konstituzioaren 3.artikulua da. Bertan xedatzen denez, gaztelaniarekin batera, Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira, bakoitzari dagokion autonomia-erkidegoan, beren estatutu autonomikoen arabera.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzkoak, **6. artikuluan**, xedatu zuen euskara Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala dela, eta bertako biztanle guztiei aitortzen zaiela euskara eta gaztelania hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Horrez gain, autonomia-estatutuak erakunde erkideei aitortu zien bi hizkuntza ofizialen

¹ <https://www.euskadi.eus/aroa-marko-orokorra-eta-dokumentu-nagusia/web01-a2esep/eu/>

² <https://www.euskadi.eus/vii-plangintzaldia-2023-2027-euskal-sektore-publikoan-euskararen-erabilera-normalizatzeko-planak/web01-a2euadmi/eu/>

erabilpena bermatzeko ardura, beraien ofizialtasuna erregulatuz, eta beraien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabakitzeko gaitasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioaren oinarritzko habe **juridikoa Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea** izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaltzen zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko eta euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundearen babesa eskaintzeko. Bere 5.2 artikuluan arabera, Euskal Herriko herritarrei funtsezko hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie gizarte-bizitzako alor guztietan. Horretaz gain, legearen 14. artikuluan xedatzen denez, «herri- aginteei Euskal Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte». Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara susta dezaten.

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, hizkuntza eskakizunen sistemaren oinarriak ezarri zituen. 97.5 artikuluan ezarri zen Euskal Administrazio Publikoetan zeuden lanpostuei zegokien hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data jartzea.

2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Lege berriko 7. artikulua euskara arloan udalerriek dituzten eskumenak behin betiko argitzera dator. Artikulu horrek hizkuntza gaietan udalei eskaintzen dizkion eskumenak, berezko eskumen gisa kalifikatu eta bi norabidetara hedatzen ditu:

- Barnera begira, udalak gauzatzen eta eskaintzen dituen zerbitzu eta jardueretan euskara sustatzeko eta erabilera planifikatzeko eskumena aitortuz. Lege honek norabide berri bat ezartzen du, udalerriek hizkuntza ofizial bakarra erabiltzeko aukera emanez, betiere komunikazio egintzetan herritarrei hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatuz.

- Kanpora begira, beren lurralde esparruan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena aitortuz.

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa: zerbitzu hizkuntzan ez ezik, lan hizkuntzan ere urrats kualitatiboak emateko aukerak zabaltzen ditu.

19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

Ermuko Udalean euskararen erabilera arautzeko Udal Araudia (BAO, 2024/07/08koa)

PLAN ESTRATEGIKOAREN IKUSPEGIA

Plan estrategikoa plangintzaldiko bost urterako plan orokorra da; bertan Ermuko Udalak helburuak ezartzen ditu, baita zelako emaitzak espero dituen bitarte horretan ere.

Ermuko Udalak euren plan estrategikoa diseinatu eta onartuko dute plangintzaldiaren lehen urtean. Dena den 19/2024 dekretu berriaren ezarpenak eta Eusko Jaurlaritzak eskaini beharreko baliabideen atzerapenak gurean ere atzerapena eragin du.

Planetako helburuak —nahiz aurreikusitako emaitzak— errealistak eta egingarriak izango dira; baina era berean, erakundearentzako erronka ere bai.

HELBURU NAGUSIA: euskara lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza gisa erabiltzea, herritarrak beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz) artatzea, eta haien hizkuntza-eskubideak betetzea.

HELBURU OROKORRAK:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak egitea.
- Administrazio publikoen arteko harremanetan euskara areagotzea.
- Lidergoa indartzea, zeharlerro hauek bideratuz:
 - Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta arauak ezartzea.
 - Hizkuntza gaitasuna handitzea.
 - Euskararekiko atxikimendua areagotzea.


APLIKAZIO EREMUA

Plan honen aplikazio eremua Ermuko Udala bere osotasunean da, Promosa eta Izarra Center Fundazioa Udal erakundeak izan ezik.

ERABILITAKO METODOLOGIA

Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa diseinatzeko Ermuko Udalak erabili du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia: KEMEN, zeinaren bidez erakundean euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion 48 adierazle ebaluatzen diren, horietako 20 kudeaketaren ardatzaren baitan, eta gainontzeko 28ak erabileraren ardatzaren baitan. Horietako 14 adierazlek osatzen dute Adierazleen Aginte Panela (ikusi 6.orrialdea), eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko 19/2024 Dekretuak zehaztu bezala, adierazle horien inguruko informazioa eman beharko zaio hizkuntza normalizazioan eskumena duen organoari, bertan adierazten den moduan.

PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO URRATSAK



Ermuko Udalaren sistema egituratua.

Hemendik aurrera euskararen normalizazioaren erreferentzia izango den batzorde teknikoa osatuko da Ermuko Udalean.

Osaera:

- Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Modernizazioa (Administrazio plangintza eta -berrikuntza) administrazio-unitateko ordezkari bat.
- Aholkularitza juridiko eta kontratazio ataleko arduradun bat.
- Pertsonen Kudeaketa administrazio unitateko ordezkari bat.
- Sindikatu-ordezkari bat.
- Zuzendaritza batzordeko kide bat.
- Hizkuntza Normalizatzeko teknikaria.
- Euskararen zinegotzi delegatua, zeinak presidente gisa jardungo duen.
- Aztertu beharreko gaiengatik beharrezkotzat jotzen bada, beste kide batzuei dei dakieke.

Funtzioak:

Batzorde teknikoa urtean bitan bilduko da gutxienez, eta erregelamenduaren eta planaren jarraipena egingo du, prozesuaren edozein fasetan erregelamendua ezartzeko edota planean zehaztutakoa betetzeko zailtasunak eta atzerapenak aztertuz, eta ekintza zuzentzaileak adostuko ditu.

Autodiagnostikoa

Autodiagnostiko bikoitza egin da Ermuko Udalaren Plan Estrategikoa osatu ahal izateko: kuantitatiboa zein kualitatiboa.

Autodiagnostiko kuantitatiboan KEMEN osatzen duten 48 adierazleak neurtu dira, eta horretarako datu-iturri bikoitza erabili da: batetik, erakundeko 33 langilek betetako galdetegiaren erantzunak³ kontuan hartu dira, eta, bestetik, erakundeari zuzendutako galdetegiaren erantzunak.

Autodiagnostiko kualitatiboa burutzeko talde eragileak hainbat arloren inguruan hausnarketa egin behar izan du: Ermuko Udalaren euskararen egoera, orain arte euskararen erabilera normalizatzeko egindakoa, eta, azkenik, indarguneak eta hobetzekoak.

Bi diagnostiko horietako emaitzak kontuan hartuta, lehenengo eta behin erabaki da zein adierazlek osatu behar duten Ermuko Udalaren plan estrategikoa, eta, hori erabakita, VII. Plangintzaldirako helburu kuantitatiboak zein kualitatiboak zehaztu dira, Ermuko Udalak datozen bost urteetarako euskararen normalizazioan duen ikuspegia lortu ahal izateko.

³ Diagnostikoaren bilketan lortutako erantzunen kopurua ez da oso esanguratsua izan, eta, beraz, abiapuntuko egoera zehazteko lortutako konfiantza-maila txikia izan da (% 58-62). Horregatik, HPSk ez dio sinesgarritasun handirik ematen diagnostikoaren emaitzari, 2025eko ekainaren 12an bidalitako Aginduzko txostenean jasotzen denez.

Horregatik, diagnostikoa egiteko prozesua berrikusi da, eta, ondoren, nahi gabeko errore bat antzeman da datu-basearen erabileran, hain erantzun kopuru txikia eragin duena. Hala ere, prozesuarekin jarraitzea proposatzen da; izan ere, plantillari galdetegi berri bat egiteko erabakia hartuko balitz, eta kontuan hartuta txosten hau onartu aurreko prozesuan 2025eko ekainaren erdialdean gaudela, prozesua luzatu egingo litzateke, eta ez litzateke denborarik egongo planak ezarritako helburuak lortzeko. Bestalde, 2027an nahitaezkoa da diagnostiko berri bat egitea plana ebaluatzeko eta hurrengo plana diseinatzeko.

PLAN ESTRATEGIKOAREN ADIERAZLEAK.

Ermuko Udalaren euskara normalizatzeko plan estrategikoa Aginte Panela osatzen duten 14 adierazleez adierazle dago osatuta. Horiek, EAEko sektore publikoko erakunde guztiek neurtu behar duten gutxieneko adierazle sorta osatzen dute. Honi aginte-panela esaten diogu⁴.

Nahiz eta, esan bezala, hamalau adierazle osatu *Ermuko Udalaren* plan estrategikoa, VII. Plangintzaldi honetan lehentasunak zehaztuko dira eta horien arabera diseinatu eta garatuko dira urteko kudeaketa planak. Izan ere, 2023-2024 urteetan lehentasuna eman zaio kudeaketaren programazioari, eta, ondoren, kudeaketa garatzeko ekintzak garatuko dira. (*ikus 2025. urterako kudeaketa plana*).

KUDEAKETA	
EUSKARAREN OROKORRA	1. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA	2. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. 3. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.
LANGILEAK	4. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	5. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA	
ZERBITZU- HIZKUNTZA	6. Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen. 7. Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz. 8. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. 9. Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. 10. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
LAN-HIZKUNTZA	11. Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. 12. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
	13. Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak
	14. Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.

⁴ Hala ere, diagnostikoa egitean, KEMEN metodologian jasotako 48 adierazleak bildu dira, informazio zehatzagoa izateko.

HELBURU ESTRATEGIKOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	1000
%38	387,09	%75	750	

BIKAITASUNAREN BIDEAN

2024ko amaieran bigarren aldiz jaso dugu Eusko Jaurlaritzako BIKAIN ziurtagiriak proposaturiko kudeaketa sisteman oinarritutako diagnostikoa. Aurrekoan 2018an egin zen eta orduan 267,83 puntuazioa lortu zuen Udalak. Aurten 387,09 puntuazioa eskuratu du, baina egia esan, batez ere, gizarteak bultzatutako olatuak eraginda egin dugu aurre, gizartea gero eta euskalduna delako eta horrekin batera udalera sartzen diren langileek ere etxea euskalduntzen dutelako. Plangintzaldi berri honi begira, itxaropentsu gaude, zehazturiko helburuak errealistak eta egingarriak baitira. Baina ez dira makalak, erakundea eraldatu beharra dago, urte askotako inertziekin apurtuz.

KUDEAKETA. 1.- ardatza.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	300
%27	81,20	%66	265	

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

Orain arte, euskara gaietako kudeaketa, orohar, Euskara Sailetik bideratu izan da eta, egia esan, ezin izan dio behar duen jarraipenik egin. landu beharreko helburu gehienak euskara arlotik kanpo zirelako. 2024an, berriz, Udaleko euskararen erabilera arautzeko [Udal araudia](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/07/08/II-3604_eus.pdf?hash=83679e40276dd1739d47e7ced8b1eefa)⁵ onartu zuen Udaltzat, horren bitartez Euskararen normalizazioa Euskara Sailaren ezezik Udal guztiona izatea ezarri da, helburu eta lan ildo zehatzak jasoz.

⁵ https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/07/08/II-3604_eus.pdf?hash=83679e40276dd1739d47e7ced8b1eefa

KUDEAKETA OROKORRA 1. Arloa

Erakundeak erabilera planak kudeatzeko egituratuta duen sistema da, erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten duena.

Horretarako administrazioko jarduna araututa dago hizkuntzaren ikuspuntutik eta jarraibide zehatzak emanda.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	60
0	0	%66	40	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
1.0.1.2.- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	Orain arte planari derrigortasun indizeaz gain ez zaio jarraipenik egin. 2024ko uztailean Ermuko udalean Euskararen erabilera Arautzeko Udal araudia onartu zen. Horretan zeharkakotasunez lan egiteko proposamena egiten da, aipatzen diren helburu eta zereginetan. Bertan Hizkuntzen kudeaketaz arduratuko den batzorde teknikoa jartzea agintzen da. Horren zeregina Erregelamenduaren jarraipena egitea da, prozesuaren edozein fasetan erregelamendua ezartzeko zailtasunak eta atzerapenak aztertuz	%0	%66

LIDERGOA. 2. Arloa

Arduradun politiko eta teknikoek era-bilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean duten parte-hartzea da, jarrera proaktiboa erakustea, planean finkatutako helburuak betetzeko, eta izendatutako arduradunek planean zehaztutako adierazleak biltzea.

Hau da, liderrek erabilera planarekiko eredugarritasuna, erreferentzialtasuna eta erantzukizuna bereganatzea. Horregatik, HPSek bidalitako Aginduzko txostenean jasotzen den bezala, arlo honetan markatu beharreko helburuak %100a izan beharko luke, nahiz eta gure aurreikuspena txikiago izan.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	75
%19,12	14,34	% 87	65	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
------------	--	------	------

1.0.2.4.- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	Araudiaren osaketan arloetako zuzendariak bere ekarpenak eta hainbat ohar azaldu dituzte. Ekarpene guztiak oso emankorrak izan dira	%8,20	
1.0.2.5.- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.	Orohar, orain arte, legeak agindutakoa baina gehiago ez da egin, proaktibotasuna falta izan da eta lidergorik ez da izan.	%25	

LANGILEAK. 3. Arloa

Langileei erakundeko erabilera planari eta hizkuntza irizpideei buruz ematen zaien informazioa da; euren lan jardunean bete beharreko hizkuntza irizpideak argi izatea, betetzea, euren parte hartzea bermatzea erabilera planean zehaztutako sustapen ekintzetan; eta langileek iritzi positiboa izatea euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.

Ahalegin berezi eta etengabea egin beharra dago langileek informazio guztia jaso dezaten eta horrela planean eragile aktibo bihurtu daitezten, eurak baitira neurri argi batean helburuak lortzearen arrakastaren giltza.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	60
%50,49	30,30	%100	60	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
1.0.3.8.- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	Langileek oso ondo barneratua dute onartutako hizkuntza irizpideak bete behar direla eta herritarrei aukeratutako hizkuntzan artatu behar direla Administrazioko langileekin: kontratatutako langile berri guztiei harrera plana egitea, administrazioak euskararen erabilera areagotzeko dituen baliabideak eta irizpideak jakinarazteko. Herritarrekin: administrazioak erabilera bultzatzeko dituen egitasmoen berri ematea, eskuragarri dituen komunikazio	%70,70	%100

	kanalak erabiliz (webgunea, herriko komunikabideak ...), eta egitasmo horien erabiltzaile aktibo izatera bultzatzea		
--	--	--	--

GAITASUNA. 4. Arloa

Langileek eta arduradun politikoek lanpostuaren funtzioak ahoz eta idatziz euskaraz betetzeko gaitasuna izatea da.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	-
%57,32	-			

ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA 5.. Arloa

Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko estrategia herritarrei eta interes taldeei komunikatzea da, eta erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzea.

Udala egiten duenaren berri zabaltzeko beharra dago. Komeni da udaletik kanpo aliatuak eta bidelagunak ere izatea, herritarrek inplikatzeko eta horrela errazago egingo da aurrera egitea. Honetan tinko ahalegindu beharra dago.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	45-
%35,50	14,63-	%100	45	

HIZKUNTZA-KLAUSULAK. 6. Arloa

Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak txertatzea da, eta jarraipen sistematikoa egitea hizkuntza klausulen betetze mailari.

Oharra: atal honetan derrigorrezko adierazle bakarria hautatu bada ere, atal honen barruan badira diagnostikoan jasotako beste hiru adierazle. Hori dela eta hasierako taulan eta hurrengoan agertzen diren datuek ez dute bat egiten. Hasierako taula ezaba genezake baina egokiagoa iritzi zaigu informazioa mantentzea, nahiz eta gure aginte panelean soilik bigarren taula agertu.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	60
%36.25	21,75	%91	55	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
1.0.6.19.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	Kontratazio planean hasierako azterketa eginda dago eta adostuta dago kontratu berri bat egiten denean klausula amankomunak definitu eta txertatzea. Izendun dirulaguntzetako hitzarmenetan zein espazio publikoak erabiltzeko jakinarazpenetan ere hizkuntza klausulak txertaturik daude.	%25	%90

ERABILERA. 2.- ardatza.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	700
%43,73	306,70	%78,57	550	

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

Ermuko Udalean euskararen erabilera maila ez da altua oro har. Udalak historikoki erdarazko funtzionamendua izan du eta politikariek zein arduradun nagusiek gaztelaniaz egin dute lan. Horretaz gain, herritarrek kuantitatiboki egindako eskaera ere ez da handia izan. XXI medeko lehen laurden horretan, egoera aldatzen ari da, erretiroak direla, inkorporazio berriak euskaldunagoak direla, euskararen egoera hobea da. Orain gure erronka nagusia belaunaldi berri horiek euskaraz aritzea da eta herritarrei jakinaraztea gure erakundea euskalduna dela eta Udalarekin euskaraz egiteko animatzea da helburua.

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	210
%65	136,49	%95	205	

IRUDIA. 7 arloa.

Erakundearen errotuluak (finkoak, zein behin-behinekoak), eta entzunezkoak, argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea euskaraz egotea da. Horiez gain, euskara erabiltzea agerraldi publikoetan, eta euskaraz izatea webgunea eta sare sozialak.

Hau da, administrazioaren irudian euskararen presentzia areagotu eta bermatzea, bai barrura, zein kanpora begira.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	42
%66.82	28,06	%88	37	

HERRITARREKIKO HARREMANAK. 8. arloa

Langileek herritarrei ahoz euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egitea da, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen; eskatzen duten herritarrei euskaraz ematea zerbitzua ahoz; herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzea; herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzea dokumentuak; herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egiten duten herritarrei euskaraz erantzutea, idatziz; eta herritarrek euskaraz zuzentzea erakundeari ahoz eta idatziz.

Administrazioaren betebeharra da herritarren eskubideak momentu oro, osorik eta eraginkortasunez betetzea, beraz, salbuespenik gabe, lortu beharreko helburua %100 izan behar da.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	168
%64,54	108,43	%100	168	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
2.1.2.25.- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	Herritarrei eurek erabilitako hizkuntza erantzuten zaie administrazioetik, baina ez dago jarrera proaktiborik eta herritar euskaldun askok Udala erdal eremutat hartzen dute.	%43,20	%100
2.1.2.26.- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	Orohar betetzen da	%75	%100
2.1.2.27.- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	Nahiz eta emaila euskalduna izan, gehienetan ez dago eskaera nahikorik ikastaro euskara hutsez egiteko. Ume eta gazteei ikastaroa euskara hutsez antolatzeak aukera egonkortu beharko litzateke eta publiko helduari zuzendutakoan aukera bi eskaini	%17,50	%100
2.1.2.28.- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.	Betetzen da, baina Web orrian jartzen den hainbat dokumentazioa (aurrekontuak, memoria...) gaztelania hutsez jartzen da. Bietan agertu beharko lirateke.	%90	%100

2.1.2.29.- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.		%100	
--	--	-------------	--

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	490
%34,51	169,58	%71	350	

BARNE-HARREMANAK. 9. arloa

Lan bilerak euskaraz egitea, lankideen arteko ahozko lan harremana euskaraz izatea, lankideen arteko ahozko harreman ez formala euskaraz izatea; erakundearen barruko administrazio prozedurak, xedapen orokorrak euskaraz jartzea abian; eta lanari lotutako hizkuntza paisaia euskaraz egotea. Hau da, administrazio barruko harremanetan, ahozkoan nahiz idatzian, euskararen erabilera areagotzea.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	147
%57,06	83,87	%88	130	

- **Helburu estrategikoak**

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
2.2.1.33.- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	Bat-bi-hiru artekoen harreman batzuk euskaraz izaten dira, baina talde handiagoa denean beti dago bateren bat ondo moldatzen ez dena eta erdarara jotzen da.	%26,80	%88
2.2.2.40.- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	Gaur egun itzultzaile neuronalen zabalkundea nabaria da eta horri esker neurri handi batean bete egiten da helburu hau.	%69,20	%88

KANPO-HARREMANAK. 10. arloa

Sektore publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuarekin ahozko harremana euskaraz izatea da, eta euskaraz edo ele bietan izatea idatzizko komunikazioak.

Administrazioak beste administrazio, herritar eta enprekin dituen harremanetan, ahozkoan nahiz idatzian, euskararen erabilera areagotzea eta bermatzea, beti ere kontuan izanda herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela.

Oharra: atal honetan derrigorrezko adierazle bakarra hautatu bada ere, atal honen barruan badira diagnostikoa jasotako beste hiru adierazle. Hori dela eta hasierako taulan eta hurrengoan agertzen diren datuek ez dute bat egiten. Hasierako taula ezaba genezake baina egokiagoa iritzi zaigu informazioa mantentzea, nahiz eta gure aginte panelean soilik bigarren taula agertu.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	98
%33,02	32,36	%67	66	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023	2027
2.2.5.48.- Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.	Ez dugu jarraipenik egiten eta langileek esandakoa aintzat hartzen dugu. GESTIONAren bitartez jarraipen automatizatua egiteko aukerak aztertu beharko lirateke.	%30	

PRESTAKUNTZA. 11. arloa

Erakundeek langileei prestakuntza orokorra euskaraz eskaintzea da, eta langileek euskaraz jasotzea. Horrezaz gain, hizkuntza trebakuntza eskaintzea langileei

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	73,5
%4,37	3,21	%59,86	44	

- **Helburu estrategikoak**

BALIABIDE INFORMATIKOAK. 12. arloa

Langileek euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzea da.

Hau da, aplikazio informatikoetan euskararen presentzia areagotzea eta bermatzea, euskaraz dauden aplikazioak instalatuta eta langileek aplikazio horiek erabiltita.

Hasierako egoera	Aurreikusitako egoera	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
------------------	-----------------------	-------------------------------------

%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	73,5
%25,15	18,42	%88	65	

SORTZE-HIZKUNTZA. 13. arloa

Sortze hizkuntza euskara izatea da.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Helburuko puntuazioa	98
%32,30	31,65	%45	45	

2025EKO KUDEAKETA PLANA

Jarraian, plan estrategikoan aurreikusitako helburuak lortzeko programatzen diren ekintzak jasotzen dira. Ekintza horiek zehatzak dira, eta horietako bakoitzak bere garapena izango badu ere, hurrengo taulan ahalik eta argien jasotzen saiatzen gara, hau da, aipatzen den planaren arloa, hobetu nahi den adierazlea, egin beharreko ekintzaren izena, hura garatzeaz arduratuko den arduraduna edo inplikaturako saila eta garatzea espero den urtea.

ARLOA	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	1.0.1.2.- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	1. Batzorde teknikoa urtean birritan aritzea (lk. 5. Or).	ZUZENDARITZA OROKORRA	X	X	X
LIDERGOA	1.0.2.4.- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan	2. Urtean behin kudeaketa planaren berriematea batzorde informatiboetan.	Euskara zinegotzia	X	X	X
	1.0.2.5.- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.	3. Zeharkako Udal plan guztietan euskara aintzat hartzea.	Zuzendaritzak	X	X	X
		4. Ekitaldi publikoetan euskara normaltasunez eta orekaz erabiltzea (adb.: Jardunaldi Onak...)	Alkatea	X	X	X
LANGILEAK	1.0.3.8.- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	5. Langile berri guztiei harrera plana egitea, administrazioak euskararen erabilera areagotzeko dituen baliabideak eta irizpideak jakinarazteko.	PERTSONAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	X	X	X

ARLOA	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
		6. Protokolo bat sortzea, herritar batek euskaraz hitz egiteko asmoa duela adierazten duenerako.	Kalitate teknikaria	X	X	X
		7. Derrigortasun-data ezartzea titularrak egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei.	Zuzendaritza orokorra	X	X	
		8. Urteko memorian Langileen Zerrendako lanpostuetako hizkuntza eskakizunetako banaketa eta lanpostu horietan dauden langileen egiaztatze mailari buruzko datuak jasotzea.	PERTSONAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	X	X	X
		9. 19/2024ko dekretuan jasotako Hizkuntza -Eskakizunen sistema Langileen Zerrendaan ezartzea (III. Kapitulua)		X	X	X
GAITASUNA		10.Euskaraz lan egiteko baliabide informatikoei buruzko formakuntza eskaintzea.	Euskara Saila	X		X
		11.IVAPeko formakuntza ahalbideratzea.	Euskara Saila	x	x	x
		12.Prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko derrigorrezko edo borondatezko eskabideen onarpena, baldintzak eta konpentsazioak prestakuntza arautegian zehaztea.	Pertsonal batzordea	X		

ARLOA	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
		13.Birziklatze eta trebakuntza saioak sustatzea.			x	
KOMUNIKAZIOA		14.Euskararen Nazioarteko eguneko adierazpen instituzionala.		x	x	x
		15.Administrazioak euskararen erabilera bultzatzeko dituen egitasmoen berri ematea, eskuragarri dituen komunikazio kanalak erabiliz.	Komunikazioa	x	x	x
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	1.0.6.19.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetao hizkuntza-klausulen betetze-mailari	16.Hizkuntza irizpideen berri Udal dirulaguntza jasotzen duten elkarteei komunikatzea.	Arloko teknikariak	x	x	x
		17.Kontratazio berrietan hizkuntza klausula bateratuak txertatzea.	Kontratuaren arduraduna	x	x	x
IRUDIA		18.Armarrian irizpide berria ezartzea.	Komunikazioa		x	
		19.Herrian dauden igogailu eta komun publikoetako megafonian irizpidea aplikatzea.	Hirigintza	x		
HERRITARREKIKO HARREMANAK	2.1.2.25.- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	20.Herritarrak animatu administrazioarekin euskaraz egiteko (identifikagarriak erabiliz...).	Denok	x	x	x

ARLOA	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
	2.1.2.26.- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	21.Azpikotrata bidezko zerbitzuak zaintzea.	Kultura Saila Gizarte Zerbitzuak	X	X	X
	2.1.2.27.- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	22.Ikastaroak antolatu aurretik irakasle euskaldunak lortzen saiatzea, ikastaro horiek euskaraz ere eskaintzeko.	Sail guztiak	X	X	X
	2.1.2.28.- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.	23.Aurrekontua, memoria, aurrekontua betearazteko arauari buruzko txostenak, plan estrategikoa... euskaraz ere lantzea.	Zuzendaritza orokorra	X	X	X
	2.1.2.29.- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	24.Hizkuntza aukera errespetatu. Eskaeren kontaketa aldiro egitea.	Sail guztiak Kalitatea	X		
BARNE-HARREMANAK	2.2.1.33.- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	25.Eusle moduko ekimenak martxan jarri ⁶ .			X	X
		26.Lan-bileretan elkarriketa elebidunak sustatuko dira.	Zuzendaritzak	X	X	X

⁶ Eusle metodologia euskararen erabilera areagotzea ekar dezakeen dinamika bat da, kide guztiek gutxienez euskarazko ulermen on bat duten taldeetan aplikatzeko sortua. Hala, metodologia horren bitartez, eratzen da dinamika berri bat non, talde-borondatea oinarri, lankide batzuen euskarazko erabilera berriak zentzua eta zilegitasuna dituen, modu horretan ohituren aldaketari atea zabalduz.

ARLOA	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
		27. Euskararen aldeko herri-ekintzetan parte aktiboa izatea (<i>Euskaraldia. Korrika...</i>)	Alkatetza	X		X
		28. <i>Arnasguneak</i> identifikatzea ⁷ .	Euskara Saila		X	
	2.2.2.40.- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	29. Desbiderapenei aurre egin eta dagokionari ekintza zuzentzaileak proposatzea.	Zuzendaritza Euskara Saila	X	X	X
KANPO-HARREMANAK	2.2.5.48.- Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.	30. GESTIONAREN bitartez jarraipen automatizatua egiteko aukerak aztertu	Kalitatea	X		
PRESTAKUNTZA		31. Urteko memorian eskainitako eta burututako ikastaroen hizkuntza eta partaide kopuruari buruzko adierazleak jasotzea.	PERTSONAK KUDEATZEKO ZERBITZUA			
		32. CI eta C2 egiaztatuta duten langileen kasuan, eta euskara maila txikiagoa duten langileen kasuan ere euskarazko formazioa hartzea sustatzea.	PERTSONAK KUDEATZEKO ZERBITZUA	X	X	X
BALIABIDE INFORMATIKOAK		33. Formakuntza eskaini.	Euskara saila	X		X

⁷ «Arnasguneak»: lan tokiak edota gune soziofuntzionalak zeinetan euskara dakiten langileen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita lan-harremanetan.

ARLOA	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
		34.Instalazio berri guztiak euskaraz ordenagailua euskaraz konfiguratu.	TEKNOLOGIA ZERBITZUA	X	X	X
		35 Ordenagailu publikoak identifikatu eta erdia euskaraz konfiguratu.	TEKNOLOGIA ZERBITZUA	X	X	X
SORTZE-HIZKUNTZA		36.Beste iturburu batzuetatik hartzen denean informazioa edota agiriak norberak egokitu edo landu behar dituztenean, euskarazko jatorrizko iturrietara jo.	Langileak	X	X	X

I. ERANSKINA. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOAREN EMAITZAK (47 ADIERAZLEAK)

2024ko abenduan, Saregin aplikazioaren galdetegia erabiliz, euskararen egoeraren diagnostikoa jaso genuen Udalean. Galdetegia osatu genuen, eta abian jarriko dugun planean nahitaezko 14 adierazleak erabiliko baditugu ere, diagnostikoa egiterakoan Eusko Jaurlaritzak proposatutako 48 adierazleak erabili ziren. Hauek dira langileek eta antolatzaileek betetako galdetegian lortutako emaitzak::

KUDEAKETA % 43 ; 306	ADIERAZLEA	Hasierako egoera (%)	Arloaren % eta puntuazioa
KUDEAKETA OROKORRA	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	-	
	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	-	
LIDERGOA	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	8,20	% 19 ; 14
	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezen.	25	
	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan.	25	
LANGILEAK	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	30,70	% 50 ; 30
	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	70,70	
	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	58,30	
	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	13,40	
	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	39,50	
GAITASUNA	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	68,40	% 57
	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	55,30	
	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	50	
ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei	25	% 32 ; 14
	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	50	
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	30	

	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	100	% 36 ; 21
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	25	
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	25	

ERABILERA % 43,73 ; 306		ADIERAZLEA	Hasierako egoera %		Arloaren % eta puntuazioa
ZERBITZU HIZKUNTZA	IRUDIA	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	93 EU: 42.5 ; ELEB: 57.5	Finkoa EU:40 ; ELEB: 60 Aldi baterakoa/ikus-entzunezkoak EU: 45 ; ELEB: 55	% 66 28
		Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	92 EU: 25 ; ELEB: 75	Argitalpenak EU: 20 ; ELEB: 80 Iragarkiak/publizitatea EU: 30 ; ELEB: 70	
		Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	5		
		Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	94,40 EU: 18.75 ; ELEB: 80	Albisteak ELEB: 100	
				Herritarrentzako dokumentuak ELEB: 100	
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	43.20		% 64 108
		Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	75		
		Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	17,50	Ekitaldiak: 70 Ikastaroak:100	
		Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	90 EU: 58.3 ; ELEB: 33.4		
		Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	100 EU: 100		
		Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	26		
		Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	5 EU: 67		
	LAN HIZKUNTZA	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	20		% 57 83,87
		Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	26,80		
		Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	30		
		Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	69,20 EU: 83.9 ; ELEB: 15.9		
		Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian	100 EU: 60		
		Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian	100 EU: 50		

		Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	50,40 EU: 74.2 ; ELEB: 12.9		
	KANPO-HARREMANAK	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	48,40		% 33 32
		Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	30 EU: 70 ; ELEB: 30		
		Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	30,30		
		Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	25 EU: 60 ; ELEB: 30		
	PRESTAKUNTZA	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	0 EU: 40		% 4 3,21
		Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	9,7		
		Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	0		
	BALIABIDE INFORMATIKOAK	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	32		% 25 18
		Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	17,90		
	SORTZE-HIZKUNTZA	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak	32		% 32 31

II.ERANSKINA. PUNTUAZIO OROKORRA.

Bikain ziurtagiriaren Kemen ebaluazio prozesuaren euskarriaren arabera ardatzak eta arloak ditugu jarraian, atal bakoitzean ateratako emaitzarekin.

Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, erakunde publikoetan Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiria eskuratzeko ebaluazio-prozesuaren nondik norakoak garatzen dituen 2023ko uztailaren 14ko [EBAZPENA](#)ren arabera sektore publikorako puntuazio sistema ondokoa da⁸.

Ziurtagiriaren maila	Gutxienez eskatutako puntu-kopurua
Oinarrizko maila	300 puntu
Erdi-maila	500 puntu
Goi-maila	800 puntu

	Hasierako puntuazioa	2027ko amaierako helburua	Gehieneko puntuazioa
PUNTIAZIO OROKORAR	387,09	820	1000

	Hasierako puntuazioa	2027ko amaierako helburua	gehipenezko puntuazioa
KUDEAKETA	81,02	265	300
1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	0	40	60
2. LIDERGOA	14.34	65	75
3. LANGILEAK	30.30	60	60
4. GAITASUNA	-	-	-
5. ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	14,63	45	45
6. HIZKUNTZA KLAUSULAK	21,75	55	60

	Hasierako puntuazioa	2027ko amaierako helburua	gehieneko puntuazioa
ERABILERA	306,07	555	700
7. IRUDIA	28,06	37	42

⁸ <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303710e.pdf>

8. HERRITARREKIKO HARREMANAK	108,43	168	168
ZERBITZU-HIZKUNTZA	136,49	205	210
9. BARNE-HARREMANAK	83,97	130	147
10. KANPO-HARREMANAK	32.39	66	98
11. PRESTAKUNTZA	3.21	44	73.5
12. BALIABIDE INFORMATIKOAK	18,42	65	73.5
13. SORTZE-HIZKUNTZA	31.65	45	98
LAN-HIZKUNTZA	169.58	350	490